

HITZAURREA

Irakurle,

Jakin ezazu ez zarela damutuko Luis Haranburu Altunak euskaraz idatzitako kartak irakurtzeaz. Gozatuko duzu eta, barka nazazu arren, konfidantza osoz mintzatu banatzaizu. Izan ere, pena mereziko baitu irakurketak eta hori aurreratu nahi nuen disimulurik gabe.

Orain hilabete batzu Luis Haranbururen deia jaso nuen. 2003ko uda partean *Ibarretxeren Planari* buruz karta-sorta idatzi zuela kontatu zidan, eta nere iritzia jaso nahi zuela. Tira, batetik banidadea apur bat ukituta sentitu nuen, iritzia eskeini, zinegotzi xume bat besterik ez naizenean. Bestetik, gaia *Ibarretxeren Plana* zela entzun nuenean ezin dut ukatu ihes egiteko gogoia ere sortu zitzaidala. Saturazio puntu bat ematen didalako –neri behintzat– gure Lehendakariak euskal-nortasun abstraktoa politikagintzaren lanabes eta gai nagusi bihurtu izanak.

Hemen doa, irakurle, gertatu zena.

Mirari txiki bat. Euskaraz gutxitan lortzen da narratiba edo entsaiuan idazleak naturaltasunez hemen lortzen duena, erreza bailitz. Apostu egingo nuke zurekin, irakurle, gozatuko duzula moldeaz.

Eta gutxitan kritika politikoak elkartzen ditu aurrean dituzun orrialdeetan bezala, gure errealitate politikoari buruzko begirada sakona eta argumentazio kritiko mardula, edukazio apartarekin sortu eta ipinita. Setatikeririk gabe irakurtzen duenak izango du zer pentsatu eta zer erantzun dialektika jator batez. Horixe, joku garbia eta inteligentzia, Luis Haranburuk eskeintzen digun beste mirari txiki bat. Irakurleak honez gero badaki zer egin zuen irakurle xume honek. Hasieratik amaierararte gelditu gabe irakurri nituen Lehendakariari adeitasunez idatzi zizkion kartak eta amaitutakoan telefonoa hartu eta besterik gabe, bihotzez eskertu nion. Txantxarik gabe diotsut, irakurle, bihotzez hunkituta.

Esan bezala, irakurle, adeitasunez amaitzen ditu kartak Haranburuk eta ez da erretorika, bere kasuan, hitz horren erabilpena: errespetoz eta maitakor idatzi dituelako bere hausnarketa eta kritikak. Hortaz, barka nire hitz traketsak eta irakur itzazu traketsak ez direnak, Haranbururenak, hain zuzen ere.

Adeitasunez,

Maite Pagazaurtundua Ruiz
2004ko abuztuan